

Newsletter


Atal honetan, Euskadiko Turismo Behatokiaren newsletter-ak ikus ditzakegu, baita horiek guztiak biltzen dituen historikoa ere.

17. Newsletterra Maiatza 2025

Enfokatur Euskadiko Turismo Behatokiak azterketa labor bat egin du Euskadiko eskaintza eta eskari turistikoari buruzko koiuntura-adierazle nagusiei buruz, 2025.urteko datu metatuak, eta 2025eko otsaila eta martxoa, eta araututako ostatu turistiko guztiei buruz.

** Oharra: 2025eko martxoko datuak irakurtzeko, kontuan izan behar da 2025ean Aste Santua apirillean izan dela, eta 2024an, berriz, martxoan izan zen.*

2025EKO URTARRILA-MARTXOA METATUA



2025eko lehen hiruhilekoan plaza-eskaintza handitu egin da eguneko, +%5,5 (52.345), eta turisten sarrerak, +%0,7 (837.683), 2024ko lehen hiruhilekoarekin alderatuta. Aitzitik, ostatu-gauak behera egin dute, -% 0,2(1.660.540) eta plazen okupazio-mailak, -% 2,1 (% 28,00).

Ostatu-motei dagokienez, landa-ostatuek (-%1,9) eta turismo-aterpetxeek (-%0,2) eguneko plazen eskaintza jaitsi dute. Plazakako okupazioa turismo-aterpetxeetan soilik hazi da (+%2,2). Hotel eta apartamentu turistikoetan gora egin dute turisten sarrerek eta gaualdiak. Landa-ostatuek eta kanpinek jaitsierak izan dituzte adierazle guztietan. Eta aterpetxe turistikoetan sarrerak igo egin dira (+%6,1), eta gauak jaitsi (-%0,2).

Helmuga guztiek eguneko plazen eskaintza handitu dute lehen hiruhileko honetan, 2024ko hiruhileko berarekin alderatuta. Vitoria-Gasteiz da plazakako okupazioan gora egin duen helmuga bakarra (+%0,6). Bilbok gora egin du bai sarreretan (+%7,1), bai gaudietan (+%6,6). Arabako Errioxa gaudien kopuruan baino ez da igo (+%0,2). Eta, Donostian, Kostan eta Barnealdean, 2025. urtearen hasieran, ostatu-eskaeraren adierazle guztietan jaitsierak izan dira.

MERKATU IGORLEEN SAILKAPENA. 2025EKO URTARRILA-MARTXOA METATUA

10 MERKATU IGORLE NAGUSIAK

JATORRIAK	SARRERAK 2025 vs 2024	GAUALDIAK. 2025 vs 2024
Madrilgo Erk.	%3	↑
Euskadi	%3,3	↑
Frantzia	%3,8	↓
Katalunia	%8,9	↓
Gaztela eta Leon	%2,6	↑
Andaluzia	%2,5	↑
Nafarroa	%4	↑
Valentziako Erk.	%3,4	↓
Erresuma Batua	%6,1	↑
Alemania	%5,5	↑

Turisten % 64 merkatu nazionalekoak dira. Baina, nazioarteko merkatuak % 2,1eko hazkundea izan du 2024ko lehen hiruhilekoarekin alderatuta, eta merkatu nazionalak % 0,1 egin du behera.

10 merkatu igorle nagusien artean nazioarteko hiru merkatu daude: Frantzia, Erresuma Batua eta Alemania. Hazkunde nabarmenak, sarreretan eta gaudietan, barne-merkatuan (Euskadi), Andaluzian, Nafarroan eta Alemanian. Aldiz, Frantziak, Kataluniak eta Valentziako Erkidegoak jaitsiera nabarmenak izan dituzte.

Sailkapenean buru dira, hurrenkera honetan: Madrilgo Erkidegoa (%14,6), barne-merkatua (Euskadi) (% 13,9), Frantzia (% 9,6), Katalunia(% 7,7), eta Gaztela eta Leon (% 4,6).

2025EKO MARTXOA



2025eko martxoan eguneko % 2,3 plaza gehiago eskaini dira (58.015), 2024ko martxoarekin alderatuta. Aldiz, ostatu-eskariaren adierazle guztiek behera egin dute: -% 8,6 (333.116) sarreretan, -%9,2 (673.424) gaudietan, eta -% 14,2 (31,50) plazen okupazio-mailan.

Ostatu-tipologiei dagokienez, hotelek (+%2,5) eta apartamentu turistikoek (+%15,8) bakarrik eskaintzen dituzte plaza gehiago eguneko. Baina, eskari-adierazleetan jaitsierak erregistratu dira ostatu-tipologia guztietan.

Gasteizek (+%0,5), Bilbok (+10,7) eta Barnealdeak (+%0,9) plaza gehiago eskaini dituzte eguneko. Eskariaren adierazleetan, Bilbon bakarrik handitu dira turisten sarrerak (+%9,5) eta gaudiak (+%7). Plazakako okupazioaren jaitsiera orokorra helmuga guztietan.

MERKATU IGORLEEN SAILKAPENA 2025EKO MARTXOA

JATORRIAK	SARRERAK 2025 vs 2024	GAUALDIAK. 2025 vs 2024
Madrilgo Erk.	%6,8	↓
Euskadi	%3,8	↑
Frantzia	%13,7	↓
Katalunia	%28,8	↓
Gaztela eta Leon	%5,8	↓
Alemania	%1,1	↓
Errasuma Batua	%4,6	↓
Estatu Batuak	%4,7	↑
Andaluzia	%7,8	↓
Nafarroa	%8,1	↑

Merkatu nazionalak nazioarteko merkatuak baino kuota handiagoa du, %61 eta % 39, hurrenez hurren. Bi merkatuek behera egin dute 2024ko martxoarekin alderatuta; -%9,8 merkatu nazionalak, eta neurri txikiagoan, -%6,6 nazioartekoak.

Martxoko 10 merkatu igorle nagusien artean jaitsierak izan dira gehienetan. Hazkundeak soilik izan dituzte: barne-merkatua (+%3,8 sarrerak eta +%2,8 gaudiak), Alemania (+%5,5 gaudiak), Estatu Batuak (+%4,7 sarrerak eta +%10,1 gaudiak), eta Nafarroa (+%8,1 sarrerak eta +%11 gaudiak). Martxoan nazioarteko 5 merkatu igorle ditugu 10 merkatu nagusien artean: Frantzia, Alemania, Erresuma Batuaeta Estatu Batuak.

Sailkapenean buru dira, hurrenkera honetan: Madrilgo Erkidegoa (%14,2), barne-merkatua (Euskadi) (% 13,1), Frantzia (% 8,6), Katalunia (% 7,2), eta Gaztela eta Leon (% 4,6).

2025EKO OTSAILA



Otsailean, 2024ko otsailarekin alderatuta, igoerak izan dira eguneko eskainitako plazetan, +%9,1 (51.374), bai eta eskariaren adierazle guztietan ere: +%7,8 sarreretan (269.278), +%6,3 gaudietan (517.554), eta +%5,2 (28,50) plazakako okupazioan.

Ostatu-tipologia guztiek plazen eskaintza handitu dute otsailean. Ostatu gehienek zifra positiboak lortu dituzte ostatuaren eskaeran. Plazakako okupazioan landa-ostatuak (-%2,3) eta kanpinak (-%4,8) soilik jaitsi dira. Landa-ostatuek ere behera egin dute gaudietan (- %3,3).

Helmuga guztiek eguneko plazen eskaintza handitu dute otsailean. Vitoria-Gasteiz zerbait jaitsi da (%-0,8) gaudietan, eta plazakako okupazioak behera egin du Barnealdean.

MERKATU IGORLEEN SAILKAPENA. 2025EKO OTSAILA

JATORRIAK	SARRERAK 2025 vs 2024	GAUALDIAK. 2025 vs 2024
Madrilgo Erk.	%9,5	↑
Euskadi	%2,8	↑
Frantzia	%2,9	↑
Katalunia	%10	↑
Gaztela eta Leon	%12	↑
Andaluzia	%16,2	↑
Nafarroa	%5	↑
Valentziako Erk.	%6,7	↑
Aragoi	%13,1	↑
Erresuma Batua	%24,3	↑

Merkatu nazionalak nazioarteko merkatuak baino kuota handiagoa du, %66 eta % 34, hurrenez hurren. 2025eko otsailean, bi merkatuak % 8 hazidira, 2024ko otsailaren aldean.

10 merkatu igorle nagusien artean, nazioarteko bi merkatu baino ez ditugu: Frantzia eta Erresuma Batua. Merkatu guztietan urte arteko hazkundeak izan dira sarreretan eta gaudietan.

Sailkapenean buru dira, hurrenkera honetan: Madrilgo Erkidegoa (%15,1), barne-merkatua (Euskadi) (% 13,6), Frantzia (% 10,9), Katalunia (%8,2), eta Gaztela eta Leon (% 4,9).